

Alemanetik euskaratutako unitate fraseologikoen itzulpen-azterketa Tesiaren nondik norakoak

ZURIÑE SANZ VILLAR

Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera

Tesiaren¹ helburua alemanetik euskaratutako unitate fraseologikoen itzulpena aztertzea izan da, eta, artikulu honetan, horri dagozkion ideia garrantzitsuenak aipatuko ditut. Horretarako, tesiaren beraren banaketan oinarrituta, zazpi ataletan banatu dut artikulua: testuingurua eta helburuak, oinarri teorikoa, oinarri metodologikoa, aurretiazko azterketa, makro mailako azterketa, mikro mailako azterketa eta ondorioak.

Testuingurua eta helburuak

Ikerketa-lan hau ez da ezerezetik sortu. Aurrekari batzuk ditu —hala nola Barambonesen (2009), Manterolaren (2011) eta Zubillagaren (2013) tesiak—, eta horien eragina nabarmena da. Lan horietan, euskaratik edo euskarara egindako itzulpenak aztertu dituzte. Izan ere, ezin dugu ukatu itzulpen jarduerak euskara moduko hizkuntza gutxitu baten kasuan izan duen garrantzia, hizkuntzaren beraren garapena bultzatu duelako eta literatur sistema indartu duelako. Esan bezala, itzulpen horien azterketa izan da aipatu ditugun lanen xedea, eta nik ere bide horri heldu diot.

1. Tesi hau TRALIMA/ITZULIK (GIC12/197, UPV/EHU) ikerketa-taldearen barruan kokatzen da, eta, lanaren lehen aldian, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza jaso zuen.

Testuinguru horretan, hizkuntza-konbinazioari dagokionez, Zubillaga da alemanetik euskararako itzulpenak aztertu dituen. Nire tesia Zubillagarena osatzera dator. Hona zein den bien arteko desberdintasun nagusia: hark generoaren ikuspegitik egin zuen azterketa, eta, nirean, berriz, abiapuntua hizkuntza-fenomeno bat da, unitate fraseologikoak (UFak hemendik aurrera), hain zuzen. Hizkuntza-unitate horiek aztertzeaz arduratzen diren ikerketa-lanak gero eta ugariagoak dira. Gainera, hainbat ikuspuntutatik eta hainbat hizkuntza-konbinaziotan aztertu izan dira. Alemana-euskarari dagokionez, aurkeztuko dugun tesi hau da unitate fraseologikoen itzulpena aztertuko duen lehen ikerketa-lana. Horrezaz gain, kalko fraseologikoen presentzia medio, sorburu-hizkuntzaren edo beste hizkuntza baten/batzuen interferentzia neurtzeko unitate interesgarriak izan daitezke itzulpengintzaren alorrean.

Tesia egin bitartean erantzun nahi izan ditugun galderak honako hauek dira:

- Zein joera daude, itzulpen-arau eta -legeei dagokienez, alemanetik euskararako UFen itzulpenean?
- Ba al dago alderik haur- eta gazte-literaturako (HGL) edo helduen literaturako (HL) testuak itzultzearen artean?
- Eta zuzenean edo zeharka itzultzearen artean?
- Euskara egoera diglosikoan dagoen hizkuntza gutxitua izateak nola eragiten dio itzulpen-jarduerari?

Oinarri teorikoa: Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak eta fraseologia

1. Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak

Maila teorikoan, tesiaren abiapuntua Itzulpen Ikasketak izan dira, Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak, zehazki. Horregatik, marko teoriko-metodologiko horri dagozkion kontzeptuek berebiziko garrantzia izan dute tesian zehar. Gure kasuan, tesia marko horretan kokatzeak hau esan nahi du:

- Holmes-ek (1988) proposatutako eskeman, adar deskribatzailetik abiatu gara;
- xede-testu eta -kulturak osatzen dutela ardatza —eta, beraz, zentzu horretan, produktuari bideratutako lana izango litzateke—, baina sorburu-testuarekiko harremana ere aintzat hartu dugula —eta, zentzu horretan, prozesura bideratutakoa ere bada lana;
- datu enpirikoak corpusetik, testu erreletatik, erauzitakoak direla;
- jatorrizko eta xede-testuaren (edo testuen) arteko harremana definitzerako orduan, «ustezko» (assumed) kontzeptua ezinbestekoa izan dela. Horrek zuzeneko eta zeharkako testuen artean ñabardurak egon badaudela agerian utzi du;
- azkenik, bai itzulpen-arauak eta bai itzulpen-legeak aztertu direla, estandarizazioaren legea eta interferentziaren legea, alegia.

Baker-ek ez bezala, Touryk ez du unibertselez (*translation universals*) hitz egiten, itzulpen-portaera erregularrak azaltzen dituzten legez baizik. Hainbat faktorek baldintzatzen dituzte portaera horiek, eta, horregatik, probabilitate-izaera egokitzen die legeei: «if X, then the greater/the lesser the likelihood that Y» (Toury, 2012: 301).

Estandarizazioaren legearen arabera, itzultzerako orduan, jatorrizkoan dauden testu-harremanak aldatu egiten dira askotan —are, batzuetan, ez dira kontuan hartzen—, eta xede-hizkuntzako aukeren artean ohiko(ago)ak direnen alde egiten da, xede-kulturako arauen alde, alegia: «in translation, textual relations obtaining in the original are often modified, sometimes to the point of being totally ignored, in favour of [more] habitual options offered by a target repertoire» (Toury, 2012: 304). Bestalde, honako hau dio Touryk interferentziaren legearen inguruan: itzultzerako orduan, jatorrizko testuaren egiturari lotutako fenomenoak onartu egin ohi ditu itzultzaileak, eta horiek xede-testura pasatzen dira. Prozesu hori negatiboa izan daiteke —xede-hizkuntzako ohituren aurka egiten denean— baina baita positiboa ere.

Ezin izan ditugu estandarizazioaren legean eragina izan dezaketen aldagai guztiak kontuan hartu, baina ikusi dugu itzulpenen eta itzultzaileen estatusak itzulpenari eragiten diotela. Interferentziaren legeari dagokionez, makineria kognitiboa eta ingurumen sozio-kulturala aipatu ditugu aldagai posible gisa. Alemanetik euskararako itzulpenean, zeresan handia dutela ikusi dugu. Izan ere, elebitasun desorekatua/diglosikoa nagusitzen den ingurumen batean bizitzeak, eta, atzerriko hizkuntzaz gain, bi hizkuntza ama-hizkuntza mailan menperatzeak itzulpen-prozesuari eragiten diola ikusi dugu. Ondorioz, itzulpen-azterketa egiterako orduan, ezingo dugu ahaztu interferentziak egin daitezkeela.

Hainbat ikertzailek kritikatu egin dituzte aipatu ditugun lege horiek. Nire ustetan, baina, Touryk berak definitzen dituen moduan ulertzen baditugu, hots, izaera probabilistikoa duten ideia heuristikoa gisa, itzulpen-legeen azterketatik lortutako emaitzek ekarpena egin diezaiekete Itzulpen Ikasketei. Horregatik, Tymoczko (1998: 656) ez bezala, iruditzen zait merezi duela legeak aztertea.

2. Fraseologia eta UFak


UFak direnez aztergai izan dugun hizkuntza-fenomenoa, tesian zehar zer diren eta zer ezaguri dituzten aztertu dugu. Ikuspuntu historikotik deskribatu ditugunean, xede-kulturan jarri dugu bereziki arreta. Euskal fraseologian ekarpenak egin dituzten fraseologo eta paremiologo nagusiak eta haien lanak aipatu ditugu. Esate baterako, Izagirre (1981), Mokoroa eta Garatek izugarrizko bilketa-lanak egin zituzten. Gaur egun, hainbat ikuspuntutatik aztertu dira euskal fraseologismoak: itzulpenaren ikuspuntutik aztertu zituen Aierbek (2008), gaztelania-euskara hizkuntza-konbinazioan; Altzibar, García eta Alberdik (2010) euskal UFak prentsako testuetan nola erabiltzen diren aztertu dute; eta IXA taldeko zenbait kidek ikerketa-lanak egin dituzte (eta egiten dihardute) Hizkuntzaren Prozesamenduaren ikuspuntutik —besteak beste, Urizar (2012) eta Gurrutxaga (2014).

Bestalde, UFak kontzeptualki deskribatu ahal izateko, jatorrizko hizkuntzaren inguruan egin diren ikerketak eta argitaratu diren monografiak aztertzea ezinbestekoa izan da. Eskuarki, hitz anitzeko unitate gisa definitzen dira, zeinak, neurri handiago edo txikiagoan, egonkorak eta idiomatikoak diren. UFen izaera polilexikoari dagokionez, grafikoki hitz bakarra osatzen duten hitzak fraseologiara ekartzeko proposamenei erreferentzia egin diegu tesian. Gainera, badakigu hitz konbinazio hauek egonkorak direla, baina hasieran pentsatzen zena baino aldaketa gehiago onartzen dituztela. Idiomatikotasuna, bestalde, zentzu hertsia eta malguan uler daiteke, eta azken ikuspegi hori da azken aldian gailentzen dena.

3. Itzulpena eta fraseologia

Ikerketaren alorrean, hizkuntza desberdinetako UFen erkaketa hizkuntzalaritza kontrasti-boaren edo itzulpengintzaren ikuspuntutik egin daiteke. Nire abiapuntua bigarrena izan da, eta, horregatik, datuak —kasu honetan, UFak— txertatuta dauden testuinguruan aztertzea ezinbestekoa da.

UFen itzulpena aztergai izan duten lanen zenbaketa egite aldera, Wolfgang Mieder-en (2009) datu-base bibliografikoan «translation» etiketa duten lanak zenbatu ditugu. Emaitzak honako grafiko honetan ikus daitezke. Argi geratzen den moduan, 1970eko hamarkada amaieratik aurrera nabarmen hazi ziren UFen itzulpena aztertzeaz arduratzen ziren lanak.



1. irudia: UFen itzulpen-azterketak

Garrantzitsua iruditzen zaigu aipatzea itzulpen-azterketa asko paradigma preskriptiboaren barruan kokatzen direla. Horrek esan nahi du itzulpen-lege inplizitu bat nagusitzen dela, zeinaren arabera A hizkuntza bateko UF bat beste UF baliokide batekin itzuli beharko litzatekeen B hizkuntzara, xede hizkuntzara. Lan honetan, Farø-k (2006) aipatzen duen dogma fraseologiko hori gainditu nahi izan dugu. Nola itzuli beharko litzatekeen aztertu baino gehiago, nola itzultzen den aztertu nahi izan dugu. Hori egin ahal izateko, corpus digitalizatu, lerrokatu eta

eleaniztun batetik erauzitako datuak aztertu ditugu sistematikoki, COVALT ikerketa-taldeko² kideek 2001. urtetik aurrera egin duten modu bertsuan.

Oinarri metodologikoa: Lambert eta van Gorp-en eredia eta corpusgintza

Lambert eta van Gorp-ek 1985. urtean proposatutako eredia izan da tesian garatutako metodologiaren ardatza, Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileekin bat datorrelako, modu sistematikoa lan egitea ahalbidetzen digulako eta nork bere ikerketara moldatu dezakeen tresna heuristikoko gisa funtzionatzen duelako (Lambert eta van Gorp, 1985: 45). Lau dira goitik beherako eskema malgu horren puntu nagusiak: aurretiazko azterketa, makro mailako azterketa, mikro mailako azterketa eta azterketa sistemikoa.

Bestalde, corpusean oinarritutako azterketa burutu dugunez, corpusgintza ezinbestean landu beharreko alorra izan da. 1967. urtean sortu zen lehen corpus elektronikoa, eta 90eko hamarkada da erreferentzia-corpus zabalen garaia. Lehen euskal corpora, Orotariko Euskal Hiztegiaren testu-corpusa, 1984. urtekoa da, eta, Areta eta al. (2008) lanean aipatzen den moduan, datu horrek adierazten du euskara ez zela berandu iritsi corpusgintzara (2008: 79). Gaur egungo egoerari dagokionez, iruditzen zait euskal corpusen kalitatea eta aniztasuna direla azpimarratu beharrekoak; corpus elebakarrak (Web-corpusen Ataria³) kontsulta ditzake erabiltzaileak sarean, elebidunak (Web-corpusen Atariko corpus paraleloa⁴), eleaniztunak (Eroski Consumer Corpora⁵, EHUskaratuak⁶), erreferentziako gisa funtziona dezaketenak (Egungo Testuen Corpora⁷), espezializatuak (Zientzia eta Teknologiarren corpora⁸), estatikoak (Ereduzko Prosa Gaur⁹), monitoreak (Ereduzko Prosa Dinamikoa¹⁰), gaur egunekoak (orain arte aipatutakoak) edo hizkuntzaren bilakaera jasotzeko asmoa dutenak (XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa¹¹), besteak beste.

TRALIMA-ITZULIK ikerketa-taldetik¹² ekarpena egin nahi izan diogu euskal corpusen eremuari, eta zenbait doktoretza-tesiren baitan corpus digitalizatu, lerrokatu eta eleaniztunak

2. Jaume I unibertsitateko Josep Marco eta Heike van Lawick dira, bestea beste, COVALT (Corpus Valencià de Literatura Traduïda) ikerketa-taldeko kide. 2001. urtetik, COVALT corpora sortu eta aztertzea izan da taldearen helburua. Corpus horretan oinarrituta, alemanetik eta ingelesetik katalanera itzultitako UFen inguruko hainbat azterketa egin dituzte (esate baterako, Marco 2008, 2009, 2013, eta Oster eta van Lawick 2013).
3. <http://webcorpusak.elhuyar.org/cgi-bin/kontsulta.py?mota=arrunta>
4. <http://webcorpusak.elhuyar.org/cgi-bin/kontsulta2.py?mota=arrunta>
5. <http://corpus.consumer.es/corpus/>
6. <http://ehuskaratuak.ehu.es/kontsulta/>
7. <http://www.ehu.es/etc/>
8. <http://www.ztcorpusa.net/aurkezpena.htm>
9. <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>
10. <http://www.ehu.es/eu/web/eins/ereduzko-prosa-dinamikoa-epd->
11. <http://xxmendea.euskaltzaindia.eus/Corpus/>
12. http://www.ehu.es/tralima/inicio_eus.php


sortzen aritu gara azken urteotan —nire kasuan, AleuskaPhraseo corpusa, alemanetik euskarara itzulitako literatur testuz osatuta dagoena.

Aurretiatzko azterketa: Aleuska katalogoa eta AleuskaPhraseo corpusa

Corpusa sortzen hasi baino lehen, beharrezkoa iruditzen zitzaigun alemanetik euskarara itzuli diren testuen katalogazio-lana egin, eta katalogo hori deskribatzea.

2003an ekin zion Ibon Uribarrik lan horri, Aleuska katalogoa¹³ sortzeari, eta, ondoren, Zubillagak (2013) HGLri zegozkion 2011 arteko sarrerak eguneratu zituen. Nik eguneratu dudana azpicorpusa HGL eta HLri dagokio, eta 2013. urtera bitartekoak bildu nituen. Katalogazio maila honetan, itzulpen-moduaren inguruko informazioa izan da biltzen zailena; hau da, zehaztea zuzenean alemanezko jatorrizkotik abiatu diren itzultzaileak, edo zeharka egin dituzten itzulpenok, zubi-hizkuntza batetik (edo batzuetatik) abiatuta. Garrantzitsua da azpimarratzea aurretiatzko azterketa honetan bildutako datuak ez direla behin betikoak, eta makro eta mikro mailako azterketetatik lortutako emaitzetan oinarrituta, behin-behineko datu horiek berretsi, edo, osterantzean, egokitu egingo ditugula. Beste azterketa horiek beharrezkoak dira, bestalde, zuzenean/zeharka dikotomia hori zabaldu ahal izateko. Izan ere, argi geratu da tesian zehar itzulpenak ezin direla bi multzo trinkotan banatu.

Orotara eta gaur-gaurkoz, 710 sarrera biltzen dira Aleuska katalogoan. Testu-moten banaketa adierazten duen 2. irudian argi ikusten da HGL dela gehien itzuli den generoa. Ondoren, poesia daukagu, baina kontuan izan behar da katalogoko sarrera asko poema solteek osatzen dutela. HL eta saiakera antzera itzuli dira, eta, zalantzarik gabe, gutxien itzuli den generoa antzerkia da.



2. irudia: Testu-moten banaketa Aleuska katalogoan

13. Aurki aukera egongo da katalogoa sarean kontsultatzeko: http://www.ehu.es/tralima/catalogos_eus.php


AleuskaPhraseo corpora osatuko duten liburuak HGL eta HLkoak izango direnez, azpikatalogo hori deskribatu dugu xeheago. 504 testuk osatzen dute, eta, 2. irudiak argi adierazten duen moduan, bien arteko desoreka nabarmena da. Orotara, 126 jatorrizko egile eta 127 itzultzaile desberdinen lanak jasotzen dira azpikatalogoan. Denboran zehar izandako bilakaerari begiratzen badiogu, 80ko hamarkadatik aurrera egon zen gorakada iruditzen zaigu aipagarria. HGL eta HLko testuen alderaketari erreparatzen badiogu, paralelismoak daude itzultzaileei dagokienez. Itzultzaileak ez dira egile jakin batean espezializatzen, eta itzultzaile eta argitaletxeen artean ez ohi da loturarik egoten. Gainera, Pello Zabaleta eta Xabier Mendiguren oso itzultzaile emankorrek dira bai HGLn bai HLn, 80ko eta 90eko hamarkadetan, hurrenez hurren. Gerora, itzultzaile aniztasuna gailentzen da. Baina aldeak ere badaude narratibako testu-mota horien artean. Itzulpen modua aztertu dugunean ikusi dugu, esate baterako, HLan zuzenean egindako itzulpenak gailentzen direla (%61), eta, HGLn, berriz, zeharkakoak (%58). Bataren eta bestea- ren prestigioarekin izan dezake horrek zerikusia.

HGL-HL azpikatalogoa deskribatu eta gero, AleuskaPhraseo corpora diseinatu eta sortzeari ekin genion. Corpora diseinatzerako orduan, lau irizpide (kualitatibo) finkatu genituen. Lehenik, 1980. urtea eta gero argitaratutako itzulpenak hartu genituen aintzat. Bigarrenik, dagoeneko aipatu bezala, HGLko eta HLko testuz osatutako corpora sortu genuen. Hirugarrenik, bai zuzenean eta bai zeharka itzultitako testuak aukeratu genituen, eta, azkenik, aniztasuna bermatu genuen sorburu- eta xede-egileei dagokienez; izan ere, gure asmoa ez zen sorburu- edo xede-egile jakin baten lanak eta itzulpenak aztertzea.

Behin testuak aukeratuta, corpora bera sortzeari ekin genion. Horrek esan nahi du corpora osatzen duten 110 testuak digitalizatu, garbitu, etiketatu eta lerrokatu egin genituela, gero bilaketak modu sistematikoan egin ahal izateko. Digitalizazioa eskuz egin beharreko prozesua izan da, baina beste pauso guztiak burutu ahal izateko, TRACEaligner programa erabili dugu, UPV/EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioa jakintza-arloaren baitan dauden ikerketaproiektu (TRACE) eta -taldeei (TRALIMA-ITZULIK) esker sortu dena¹⁴. AleuskaPhraseo corpora sortzeko erabili genuena TRACEaligner-en 2.0 bertsioa izanagatik, hemen aurkeztuko duguna azken bertsioa izango da, 3.0, azken hori izango delako hemendik aurrerako lanetan erabiliko duguna.

TRACEaligner programaren interfazea da 3. irudian ikus daitekeena. Ezkerraldeko zutabean testu-mota aukeratu daiteke (ikus-entzunezkoa/antzerkia, narratiba eta poesia), eta, goiko aldean, programak dituen aukerak agertzen dira; besteak beste, testuak garbitu, etiketatu, lerrokatu eta corpusean bilaketak egin. Testuek izan ditzaketen formatu-erroreak «garbitu» ahal izateko, TXT fitxategiak sortu behar dira. Ondoren, etiketatzeko, programa TXT horietatik abiatzen da, eta XML fitxategiak sortzen ditu, zeinak bi zati nagusitan banatzen diren: metadatuak (non testuaren inguruko informazioa jasotzen den, hala nola egilea, itzultzailea, generoa,

14. Merkatuan dauden beste tresna batzuk erabil genitzakeen, egia da, baina gure lehentasuna bi hizkuntza baino gehiago aldi berean lerrokatuko zituen tresnarekin lan egitea zen, eta ez genuen gure beharretara behar bezala egokitzen zen ezer aurkitu.



3. irudia: TRACEaligner 3.0 programaren interfazea

itzulpen-modua...) eta testua bera. Testu hori, era berean, esaldi eta paragrafotan banatuta dago etiketa bidez. Hurrena, testuak lerrokatu behar dira; hau da, jatorrizko esaldi bakoitzari dagokion xede-esaldia egokitu behar zaio. Behin testuak lerrokatuta, datu-base moduko bat sortuko dugu, eta bilaketak egiteko gai izango gara. 4. irudian, esaterako, bilaketa baten emaitza ikus dezakegu.



4. irudia: Bilatzailearen interfazea eta bilaketa baten adibidea

Labur azaldu badugu ere, corpora sortzeari denbora dezente eskaini diogu; prozesu luzea izan da. Gainera, corpora sortu bitartean TRACEaligner programa bera garatzen joan gara

informatikariaren, Iñaki Albisuaren, laguntzaz¹⁵. Gaur egun dauden corpusekin alderatuta, 3,5 milioi hitzeko corpusak nahiko txikia dirudi lehen begiratuan, baina, alde batetik, kontuan hartu behar da aipatu berri duguna, eta, bestalde, gure helburuak betetzeko nahikoa handia dela iruditzen zaigu. 1. taulan, corpusak dituen beste hainbat ezaugarri jaso ditugu: zuzenean eta zeharka itzuli diren zenbat lan jasotzen dituen corpusak eta sorburu- eta xede-egile desberdinen kopurua.

1. taula: AleuskaPhraséo corpusaren ezaugarriak

	Itzulpen-modua		Egileak		Hitz kopurua		
	Zuzenean	Zeharka	Sorburu-egile	Xede-egile	Alemana	Euskara	Gaztelania
HL	19	5	17	15	1.120.534	935.530	198.274
HGL	15	9	13	16	593.871	512.204	166.860
Guztira	34	14	30	28	1.714.405	1.447.734	365.134

Makro mailako azterketa: paratestuen eta paraitzulpenaren azterketa

Makro mailako azterketan, paratestuak eta paratestu horien itzulpena analizatu dugu, eta, lortutako emaitzetan oinarrituta, behin-behineko ondorio batzuk atera ditugu, batez ere itzulpen-moduari eragiten diotenak.

Genette-n (1987) arabera, elementu paratestualak bi multzotan banatzen dira, elementuen kokapena zein den: peritestuak, testuan bertan aurkitzen direnak (izenburua, hitzaurreak, hitz-atzeak, irudiak...), eta epitestuak, testuarekiko zentzuzko distantzia batera kokatuak (kritikak, elkarrizketak, gutunak...). Peritestu eta epitestuaren batuketaren emaitza da paratestua.

Gure corpuseko testuen kasuan ondorioztatu dugu itzultzailearen ikusgarritasuna nabarmenagoa dela HLko itzulpenetan, kasuen %75ean azalean agertzen delako itzultzailearen izena. HGLn, berriz, ez dugu kasu bakar bat ere aurkitu. Kontuan hartzekoa da, gure corpuseko HLko liburu batzuk Literatura Unibertsala bildumakoak direla, eta gure corpusean jaso ditugun bilduma horretako liburu guztiek daramatela itzultzailearen izena azalean. Esan dezakegu eredu bat sortu dela bilduma horri esker, eta beste argitaletxe batzuek eredu horri jarraitzen diotela, HLn, behinik behin.

Itzulpen-prozesuaren ikusgarritasunari erreparatzen badiogu, agerian geratzen da kasu gehientsuenetan (48tik 42tan), ustez zeharka itzulitakoak barne, alemanezko jatorrizko izenburua paratestuetan agertzen dela. Esan dezakegu, modu horretan, zeharka itzuli diren testuen zeharkakotasun izaera hori ezkutatzeko ahalegina dagoela. Aitzitik, sorburu-hizkuntza, alemana, lau kasutan besterik ez da berariaz zehazten. Zubi-bertsioen inguruko edizio datuen

¹⁵ Ezinbestekoa izan da informatikariaren eta gure arteko elkarlana. TRACEaligner sortu izan ez balu, corpusari ez geniokeen horrenbesteko etekina aterako. Beraz, nire esker ona adierazi nahiko nioke Iñaki Albisuari, egindako lan guztiagatik.

inguruko informazioa, zeharkakotasunaren adierazle izan daitekeena, bestalde, HGLko testuetan bakarrik jasotzen da, eta, gure kasuan, bost testutan besterik ez. Oro har, esan dezakegu paratestu mailako elementuek ez dutela itzulpen-prozesuaren inguruko informazio horren fidagarria ematen. Horregatik, epitetuetara ere jo genuen; hots, itzultzaileekin harremanetan jarri ginen kasu batzuetan, eta berariaz galdetu genien ea alemanetik zuzenean edo zubi-bertsio batetik (edo batzuetatik) abiatuta itzuli zituzten lanok.

Ondoren, Garrido Vilariñok (2011) proposatutako kontzeptu batean oinarrituta, *paratranslation* delakoa, paratestuen itzulpena aztertu genuen; alegia, liburuaren izenburuak nola itzuli diren ikusi genuen, liburu barruko atalen itzulpena ere deskribatu genuen, eta liburuetakako sorburu- eta xede-azalak ere alderatu genituen. Kasu batzuetan, makro mailako itzulpen-azterketa horretan ikusi dugu ustez zuzenean itzuli diren (batez ere) HGLko testu batzuen kasuan alemanezko jatorrizkoa ez den beste testuren batek eragina izan duela euskarazko itzulpenean.

Hori gertatzen da, esate baterako, bi liburu hauekin: *Jojo, pailazo baten historia* eta *Ingeles bat etxean*. Gaztelaniazko bertsioetako izenburuak, hurrenez hurren, hauexek dira: *Jojo, historia de un saltimbanqui* eta *Intercambio con un inglés*. Berdin-berdinak ez izan arren, jatorrizkoak (*Das Gauklermärchen* eta *Das Austauschkind*) ez dituzten hitzak partekatzen dituzte euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenek, hala nola «Jojo» eta «ingeles». HLko beste liburu baten kasuan, *Hildakoek ez dute hitz egiten*, itzultzaileak esan zigun zuzenean alemanetik itzuli zuela, baina gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioak ere izan zituela kontutan. Ipuinetako baten izenburuaren itzulpenean sumatu dugu alemanezkoa ez den beste bertsio baten interferentzia: *Ekintza onak, diskrezioz eta fede onez eginak* ipuinean, hain zuzen. Izan ere, gehiago gerturatzen da gaztelaniazko bertsiora (*Obras de caridad, con discreción y de buena fe*) alemanezkora baino (*Wohltaten, still und rein gegeben*).

Ondorioz, ñabardura horiek guztiak jasotzen dituen sailkapen malguago bat behar dugu itzulpen-prozesuan parte hartzen duten testuen arteko harremana xeheago deskribatu ahal izateko. Horretarako, ñabardura horiek guztiak hobeto islatzeko, «zuzeneko» eta «zeharkako» etiketez gain, «aldez zuzeneko» eta «zeharkako konpilatua» terminoak gehitu ditugu makro mailako azterketa gina eta gero.

Mikro mailako azterketa: somatismoen eta binomioen itzulpena

Testu-azterketa mailan, bi UF mota izan ditugu aztergai: somatismoak eta binomioak. Horrela, bi azterketetatik lortutako emaitzak alderatzeko aukera izan dugu. Bestalde, corpusean bilaketak egiterako orduan, ez gara bakarrik sorburu-testuetatik abiatu, ohikoa den legez; euskarazko itzulpenetatik abiatutako bilaketak ere egin ditugu. Hala, IIDen baitan nagusitzen den joerari (*target-orientedness* delakoari) jarraituz, xede-testuan jarri dugu arreta.

UF-erazketak egiterako orduan, ez dugu berdin jokatu somatismo eta binomioen kasuan. Hitz-zerrendak izan dira abiapuntua lehenengo kasuan. 2. taulan ikus daitekeen moduan, AleuskaPhraseo corpusean maizen erabiltzen diren izenen artean daude gorputz-atalak, bai

alemanez bai euskaraz. Alemanezko *Hand* (esku) eta euskarazko *esku* oso ohikoak direnez bi hizkuntzetan, *Hand* edo *Händ*-ekin eta *esku*-rekin hasten diren hitz guztiak (testuingurua barne) erauzi genituen corpusetik. Ondoren, banan-banan aukeratu genituen *Hand* eta *esku*-rekin osatutako somatismoak, eta beste emaitza guztiak baztertu egin genituen.

2. taula: Hitz-zerrenda

Izena (DE)	Maiztasuna	Izena (EU)	Maiztasuna
Hand (esku)	2.664	buru	4.366
Herr	2.387	ama	3.861
Mann	2.177	etxe	3.209
Mensch	2.132	esku	3.068
Frau	1.980	hitz	2.930
Auge (begi)	1.878	gizon	2.775
Haus	1.786	urte	2.730
Kopf (buru)	1.598	gauza	2.314
Mutter	1.563	begi	2.216
Leben	1.562	aurpegi	1.633

Binomioei dagokienez, corpusak ustiatzeko tresna bat erabili genuen, Antconc¹⁶ programa, eta gutxienez bi aldiz agertzen diren hiru-gramak erauzi genituen AleuskaPhraseo corpusetik. 5. eta 6. irudietan ikus daiteke euskarazko —argi eta garbi (88), batera eta bestera (86), gora eta behera (85), nola edo hala (57), zur eta lur (57), bat edo beste (46), hara eta hona (37), zer edo zer (36), gau eta egun (35)— eta alemanezko —*ab und zu* (54), *ganz und gar* (50), (*von Zeit zu Zeit* (49)— binomio batzuen maiztasuna. Erauzitako binomio kopuru handia dela-eta, formula estatistiko bat erabili genuen lagin adierazgarri batekin lan egin ahal izateko.

Behin aztergai izango ziren UFak aukeratu eta erauzita, horien itzulpena aztertu genuen. Horretarako, Marcok (2008) proposatutako itzulpen-tekniken zerrenda batetik abiatu ginen, eta, gure beharren arabera, moldaketa batzuk egin genizkion hasierako zerrenda horri. Hauek dira itzulpen-azterketan erabili genituen itzulpen aukerak:

- UF-antzeko UFa
- UF-UF desberdina
- UF-UFrik ez
- UF-kopia zuzena

16. <http://www.laurenceanthony.net/software/antconc/>

DA_EU.txt	4	88	25	argi eta garbi
DAK_EU.txt	5	86	20	batera eta bestera
DASH_EU.txt	6	85	24	gora eta behera
DBF_EU.txt	7	62	20	eta bat-batean
DDL_EU.txt	8	58	11	eta, hala ere
DEKB_EU.txt	9	57	22	nola edo hala
DGM_EU.txt	10	57	18	zur eta lur
DKG_EU.txt	11	55	18	eta hala ere
DKT_EU.txt	12	52	20	eta ez zuen
DKVG_EU.txt	13	46	22	bat edo beste
DKVZ_EU.txt	14	44	19	eta ez zen
DL_EU.txt	15	41	22	eta zergatik ez
DLT_EU.txt	16	37	10	hara eta hona
DLW_EU.txt	17	36	11	zer edo zer
DP_EU.txt	18	35	23	gau eta egun
DPGM_EU.txt				
DSP_EU.txt				
DSW_EU.txt				
DTS_EU.txt				
DTT_EU.txt				
DTV_EU.txt				
DV_EU.txt				
DVZT_EU.txt				

5. irudia: Euskarazko binomioak

BM_DE.txt	37	54	16	ab und zu
BU_DE.txt	38	54	18	das ist der
BUS_DE.txt	39	53	22	aber das ist
DA_DE.txt	40	53	27	sich an den
DAK_DE.txt	41	52	22	das ist die
DASH_DE.txt	42	52	19	sich um und
DBF_DE.txt	43	51	17	es ist eine
DDL_DE.txt	44	51	23	sie mit dem
DEKB_DE.txt	45	51	19	so ist es
DGM_DE.txt	46	50	15	als wollte er
DKG_DE.txt	47	50	25	ganz und gar
DKT_DE.txt	48	50	23	sich über die
DKVG_DE.txt	49	49	21	ich in der
DKVZ_DE.txt	50	49	22	sie in die
DL_DE.txt	51	49	18	zeit zu zeit
DLT_DE.txt				
DLW_DE.txt				
DP_DE.txt				
DPGM_DE.txt				
DPS_DE.txt				
DSW_DE.txt				

6. irudia: Alemanezko binomioak

- UF-zeharkako kopia
- UF-beste baliabide erretoriko bat
- UF-Ø
- UFrik ez-UF
- UFrik ez-zeharkako kopia
- Ø-UF

Zuzeneko eta zeharkako kopien arteko bereizketa hori izan da Marcoren zerrendari egin genion egokitzapenik nabarmenena. Zuzeneko kopien kasuan, jatorrizko testuko interferentzia izango genuke (*testu interferentzia*, beraz), eta zeharkakoek, berriz, jatorrizkoa ez den beste hizkuntza edo testu baten eragina adieraziko lukete. Garrantzitsua iruditu zaigu bien arteko bereizketa hori egitea, alemanetik zuzenenean itzultzen denean ere, beste hizkuntza baten interferentzia-zantzuak aurkitu baititugu euskal itzulpenetan. Kasu horiei, *interferentzia kognitibo* deitu diegu, interferentzia ez delako (ustez) testu batek eragindakoa, itzultzailearen buruan gertatutakoa baizik.

Jarraian, itzulpen-azterketatik lortutako emaitza adierazgarrienak aipatuko ditugu. Lehenik, abiapuntua sorburu-testua izan denean lortutako emaitzak jasoko ditugu, eta, ondoren, xede-testuetan jarriko dugu arreta.

1. Sorburu-testuetatik abiatutako itzulpen-azterketa

Proporzionaliki, UF gehiago erauzi ditugu HLko testuetatik. Horrek adieraz dezake, HGLko testuen aldean, hizkuntza jasoagoa erabiltzen dela.

Eskuarki, itzulpen-aukera ohikoena, bai somatismo bai binomioen kasuan, UF bidezko itzulpena da, eta ohikoagoa somatismoen itzulpenean (%61,26 eta %50,64, hurrenez hurren). Seguruena sistema-mailan alemanez eta euskaraz bat datozen somatismo gehiago egongo dira binomioak baino, eta horrek eragina izan dezake lortu ditugun emaitzetan. Nolanahi den, portzentajeak altuak dira, eta datu horrek erakusten du badagoela ahalegin bat xede-testuetan jatorrizko testuen izaera fraseologikoa gordetzeko.

Somatismo eta binomioen artean aurkitu dugun beste desberdintasun bat omisio eta zeharkako kopiei dagokie. Binomioen kasuan, ez dugu zeharkako kopiarik aurkitu, baina omisio bidezko itzulpena askoz ohikoagoa da binomioen kasuan (%6,69) somatismoen kasuan (%0,33) baino. Azken finean, errazagoa da karga semantiko horren handia ez duten hitz-konbinazioak itzulpen-prozesuan desagertzea.

Zeharkako itzulpeni dagokienez, bai somatismo bai binomioen itzulpenetan ikusi dugu gaztelaniazko zubi-bertsiotik aldentzeko eta euskaraz hitz-konbinazio jatorragoak sortzeko joera dagoela. Era berean, lehen begiratuan alderantzizkoa dirudien joera ere aurkitu dugu, gaztelaniatik euskarara egindako itzulpenetan, kopia bidez itzulitako kasu batzuk aurkitu baititugu. Ondorioz, onargarritasunerako joera eta testu jatorrak sortzeko ez litzateke kasu horie-

tan beteko. Aipatu beharra dago, baina, adibide horiek 80ko eta 90eko hamarkada hasierako testuetan aurkitu ditugula. Beraz, argudia liteke denbora pasatu ahala itzultzaileen jarrera ere aldatzen joan dela.

HLko edo HGLko testuak itzultzearen artean, bestalde, aldeak badaudela ikusi dugu. Batez ere binomioen itzulpen-azterketan atentzioa eman digu UFak erabili arren xede-testuetan, ez direla beti forma estandarrenak aukeratzen, eta joera hori nabarmenagoa dela HLko testuen kasuan. *Von Zeit zu Zeit* ("noizean behin") binomioaren itzulpenean, esate baterako, horixe bera da ikusi duguna: itzulpen-aukera ugari jaso ditugu, baina corpuseko (ETC corpuseko, hain zuzen) agerpen-maiztasunen arabera gutxien erabiltzen direnak (esate baterako, *alditik aldira* edo *noizetik noizera*) HLko itzulpenetan bakarrik aurkitu ditugu. Hori dela eta, aipatu dugu itzultzaileek ahalegina egiten dutela testu jasoak sortzeko, eta joera hori nabarmenagoa dela HLko testuen itzulpenean.

2. Xede-testuetatik abiatutako itzulpen-azterketa

Sorburu-testuetan UFrik ez egonagatik, euskarazko itzulpenetan UFak erabili direneko kasuen portzentajeak altuak dira bai somatismo (% 69,19) bai binomioen (% 77,94) kasuan. Batzuetan, aukera logikoena iruditu zaigu euskal UF horiek erabiltzea itzulpenetan, oso ohikoak baitira. Baina, besteetan, ahalegin berezia egin dela iruditzen zaigu UF horiek xede-testuetan txertatzeko. Inpresioa daukagu UF horien erabileraren bidez konplexutasun jakin bat gorde nahi dela xede-testuetan edo jatorrizkoak baino testu adierazkorragoak sortu nahi direla. Touryk (2012) dioenari jarraiki, xede-sistema ahula denean, badago *UFrik ez-UF* (eta *Ø-UF*) itzulpen-aukerak agertzeko joera, eta hori xede-sistemaren ahultasuna konpentsatzeko ahalegin gisa uler daiteke (2012: 140).

3. taulako adibidean, adibidez, xede-testuan agertzen den «hitzik gabe ni» horrekin adierazi adierazten da jatorrizkoak esaten duena. Eta, hala ere, binomioa, *zur eta lur*, gehitzen da euskaraz.

3. taula: Corpuseko adibidea I

Sorburu-testua	Xede-testua
Ich war sprachlos. (HFde)	Hitzik gabe ni, zur eta lur . (HFeu)

Ø-UF itzulpen-aukeraren azterketak, beste batzuetan, balio izan digu konfirmatzeko ustez zuzenean itzuli diren testuetan beste zubi-bertsio batzuk ere kontsultatu direla. 4. taulako adibidean, xede-testuan jatorrizkoan ez dauden bi esaldi («Nola edo hala... ezkutuan... Hori espero zuen!») gehitzen dira. Gaztelaniazko bertsioa kontsultatu dugu, eta honela dio: «De algún modo..., en secreto... ¡Eso esparaba! A la mañana siguiente, estando en el cuarto de baño, Max le dijo a su imagen reflejada en el espejo:» (Brezina 1996). Argi ikus daitekeen moduan, hor ere agertzen dira euskarazkoan dauden bi esaldi horiek. Beraz, testu interferentzia nabarmena

da, eta «zuzeneko itzulpen-itzulpen konpilatu-zeharkako itzulpen» continuum horretan, agian GGeu gertuago dago zeharkako izatetik, itzulpen konpilatu izatetik baino.

4. taula: Corpuseko adibidea II

Sorburu-testua	Xede-testua
Frühstens morgen würde er sich zur grünen Geisterbahn schleichen können. (GGde)	Biharamuna arte gutxienez ezingo zuen sorgin-trena ikustera joan. Nola edo hala... ezkutuan... Hori espero zuen! (GGeu)

Bilaketak xede-testuetatik abiatuta egin ditugunean ere, ez dugu zeharkako kopiarik aurkitu binomioen itzulpen-azterketan, baina bai somatismoen kasuan (%3,37). Ikus dezagun adibide bat:

5. taula: Corpuseko adibidea III

Sorburu-testua	Xede-testua
Wat ick nötig habe, kann ick mir jeden Tag an die Finger abzählen. (BAde)	Nik zer behar dudan, eskuko hatzekin konta zezakeat. (BAeu)

Alemanez, *sich etwas an den Fingern abzählen können* UFa daukagu. Hitzez hitz 'zerbait hatzekin kontatu ahal izan' esan nahi du, eta RAE hiztegian agertzen den gaztelaniazko *contar algo con los dedos de una mano* UFaren oso antzekoa da. Iruditzen zaigu gaztelaniazko UF horrek eragina izan duela euskarazko itzulpenean, *eskuko hatzekin kontatu* somatismoa *contar algo con los dedos de una mano*-ren hitzez-hitzezko itzulpena baita. Interferentzia kognitibo gisa identifikatu dugun hori izan daiteke kasu honetan gertatzen dena.

Ondorioak: ekarpenak eta etorkizuneko urratsak

Alemana-euskara hizkuntza konbinazioan unitate fraseologikoen itzulpena aztertzeke lehen saiakera da tesi hau. UFen itzulpena aztertu izan da beste hizkuntza-konbinazio batzuetan, baina ez dago aurrekaririk alemana-euskara konbinazioan.

Maila teorikoan, Euskal Itzulpen Ikasketen egoera kontuan hartuta, garrantzitsua iruditu zaigu tesia Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileen markoan kokatzea. Behin datuak lortu eta deskribatu ondoren, gai izango gara adar teoriko eta aplikatuan, itzulpenaren irakaskuntzan, esate baterako, ekarpenak egiteko.

Lambert eta van Gorpen kiribil formako eskeman oinarrituta egin diren urratsak metodologia enpirikoaren isla dira. Eskema hori aplikatzeak esan nahi du ziklo osoa egiten saiatu garela, testuinguru orokorretik testurainokoa.

Neurri handi batean eman diren pauso horiei esker, sorburu-, xede- eta zubi-bertsioen arteko harremana nahiko modu xehean deskribatu ahal izan dugu. Katalogo mailan biko kategorizazioaz baliatu garen arren, azterketan aurrera egin ahala ikusi dugu eskema malguago bat behar dela. Gure beharrei erantzuteko, bi termino berri proposatu ditugu: alde zuzenekoa eta zeharkako konpilatua.

Metodologikoki, COVALT ikerketa-taldeak bide berritzaile bat ireki zuela iruditzen zaigu, eta gu oso antzeko bidea egiten ari garela corpusean oinarritutako euskal itzulpen-ikasketen baitan. Corpusari lotuta, epe laburrera bete nahi diren helburuak hiru dira: zubi-bertsioak sistematikoki gehitzea, TRACEaligner 3.0 bertsioa doitzen jarraitzea eta corpusa lematizatzea.

Epe luzera begira, oso interesgarria izango litzateke corpusean oinarritutako alemana-euskara (gaztelania) hiztegi fraseologikoa sortzen hasteko lehen urratsak egitea.

Itzulpen-azterketari erreparatzen badiogu, sorburu-testuetatik abiatuta egiten den itzulpen-azterketa tradizionala egiteaz gain, gure azterketa bikoitza izan da, xede testuetatik ere abiatu garelako. Horrela, «sorburu-testu xede-testu» ikuspegi tradizionala gainditu dugu.

Itzulpen-arauei dagokienez, itzulpen-portaera erregularrak identifikatu ditugu, hala nola onargarritasunerako joera handiagoa dela zeharkako itzulpenetan zuzenekoetan baino, edo zeharkako testuetan zubi-bertsiotik aldentzeko joera.

Emaitza interesgarriak lortu ditugu, bestalde, itzulpen-legeen azterketatik. Estandarizazioaren legeri dagokionez, aipatu dugu U Fen erabilera ez datorrela beti bat hizkuntzaren erabilera ohiko edo konbentzionalarekin. Batzuetan, esate baterako, eguneroko hizkuntzan horren ohi-koak ez diren U Fen erabileraren bidez, itzultzaileek ahalegin berezi bat egiten dute diskurtso literario jakin bat sortzeko. Horregatik, hemendik aurrera, estandarizazioa neurtzeko beste parametro batzuk erabili beharko genituzkeela iruditzen zaigu. Bestalde, interferentzia neurtzeko unitate aproposak dira unitate fraseologikoak. Gure kasuan, zuzeneko eta zeharkako kopien emaitzek lege hau hizkuntza-konbinazio honetan nola gauzatzen den ikusten lagundu digute. Lege proposamen bat egitera ere ausartu gara. Honela dio: A hizkuntza batetik B hizkuntza gutxitu batera itzultzerako orduan, B hizkuntza egoera diglosikoan baldin badago eta C hizkuntza nagusi batekin elkarrekin bizi bada, orduan C hizkuntzaren interferentzia egon daiteke B hizkuntzan.

Agerian geratu da hizkuntzaren kanpotiko aldagaien —besteak beste, kultur testuingurua eta egoera soziolinguistikoaren— garrantzia tesian zehar: corpusa diseinatzerako orduan, testu-azterketa egiterako orduan eta abar. Euskararen egoera aintzat hartu gabe, ez guke sortu dugun corpus eleaniztuna sortuko, edo ezingo genituzke emaitza asko ulertu. Hain zuzen emaitzen interpretazio zehatzagoa egite aldera, etorkizunera begira, interesgarria izango litzateke corpusetik lortutako datuak beste ikuspegi batzuetatik lortutakoekin osatzea, itzulpen-ikasketa kognitiboetatik eta hizkuntzalaritza aplikatutik lortutakoekin oro har.

BIBLIOGRAFIA

- AIERBE, Axun (2008). “La traducción a la lengua vasca de las unidades fraseológicas especializadas del lenguaje administrativo”, in González, María Isabel (arg.) *A Multilingual Focus on Contrastive Phraseology and Techniques for Translation*, Hamburg: Kovač, 27-44 or.
- ALTZIBAR, Xabier, GARCÍA, Julio, ALBERDI, Xabier (2011). “Calcos fraseológicos en el euskera de los medios de comunicación”, in Luque, Lucía; Pamies, Antonia eta Pazos, José Manuel (argk.) *Multi-Lingual Phraseography: Second Language Learning and Translation Applications*, Baltmannsweiler: Schneider, 215-224 or.
- ARETA, Nerea; GURRUTXAGA, Antton eta LETURIA, Igor (2008). “Begiratu bat corpus-baliabideei”, *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 62.
- BARAMBONES, Josu (2009). *La traducción audiovisual en ETB-1: Estudio descriptivo de la programación infantil y juvenil*, UPV/EHU. http://www.argitalpenak.ehu.es/p291-content/eu/contenidos/informacion/se_indice_tescspdf/eu_tescspdf/adjuntos/TESIS_JOSU_BARAMBONES.pdf.
- FARØ, Ken (2006). “Dogmatismus, Skeptizismus, Nihilismus und Pragmatismus bei der Idiomübersetzung: Grundfragen zu einer idiomtranslatorischen Theorie”, in Häcki, Annelies eta Burger, Harald (argk.) *Phraseology in Motion I. Methoden und Kritik*, Baltmannsweiler: Schneider, 189-202 or.
- GARATE, Gotzon (1998). *27.173 Atsotitzak, Refranes, Proverbs, Proverbia*, Lasarte-Oria: BBK Fundazioa.
- GARRIDO VILARIÑO, Xoán Manuel (2011). “The paratranslation of the works of Primo Levi”, in Federici, Federico M. (arg.) *Translating Dialects and Languages of Minorities. Challenges and Solutions*, Oxford et al.: Peter Lang, 65-88 or.
- GURRUTXAGA, Antton (2014). *Idiomatikotasunaren karakterizazio automatikoa: izena+aditza konbinazioak*, UPV/EHU.
- IZAGIRRE, Koldo (1981). *Euskal lokuzioak. Espainolezko eta frantsesezko gida-zerrendarekin*, Donostia: Hordago.
- HOLMES, James S. (1988): “The Name and Nature of Translation Studies”, in J. Holmes, *Translated! Papers on Literary Translation and Translation Studies*, Amsterdam: Rodopi, 67-80 or.
- LAMBERT, Jose, eta VAN GORP, Hendrik (1985). “On Describing Translations”, in Hermans, Theo (arg.) *The Manipulation of Literature: Studies in Literary Translation*, London/Sydney: Croom Helm.
- ANTHONY, Laurence (2014). Antconc (3.4.3 bertsioa), Tokyo: Waseda Unibertsitatea.

- MANTEROLA, Elizabete (2011). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*, UPV/EHU. http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Humanidades/ELIZABETE_MANTEROLA.pdf.
- MARCO, Josep (2008). “*In my mind’s eye: análisis traductológico de algunos fraseologismos prototípicos en el contexto del corpus COVALT (Corpus Valencià de Literatura Traduïda)*”, *Actas del III Congreso Internacional de la Asociación Ibérica de Estudios de Traducción e Interpretación*, Barcelona: PPU, 251-262 or.
- MARCO, Josep (2009). “Normalisation and the Translation of Phraseology in the COVALT Corpus”, *Meta* 54, 842-856 or.
- MARCO, Josep (2013). “La traducció de les unitats fraseològiques de base somàtica en el subcorpus anglès-català”, in Bracho, Llum (arg.) *El corpus COVALT: un observatori de fraseologia traduïda*, Aachen: Shaker, 163-215 or.
- MIEDER, Wolfgang (2009). *International Bibliography of Paremiology and Phraseology*, Berlin; New York: Walter de Gruyter.
- MOKOROA, Justo Mari (1990). “*Ortik eta emendik*”: *repertorio de locuciones del habla popular vasca, oral y escrita, en sus diversas variedades*, Bilbo: Labayru.
- OSTER, Ulrike eta VAN LAWICK, Heike (2013). “Anàlisi dels somatismes del subcorpus alemany-català”, in Bracho, Llum (arg.) *El corpus COVALT: un observatori de fraseologia traduïda*, Aachen: Shaker, 267-294 or.
- TOURY, Gideon (2012). *Descriptive Translation Studies and Beyond*, Amsterdam: John Benjamins.
- TYMOCZKO, Maria (1998). “Computerized Corpora and the Future of Translation Studies”, *Meta* 43, 652-660 or.
- URIZAR, Ruben (2012). *Euskal lokuzioen tratamendu konputazionala*, UPV/EHU.
- ZUBILLAGA, Naroa (2013). *Alemanetik euskaratutako haur eta gazte literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*, UPV/EHU. <http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Humanidades/8670ZubillagaEU.pdf>.

Corpuseko testuak:

- BAde = DÖBLIN, Alfred (1929). *Berlin Alexanderplatz: Die Geschichte vom Franz Biberkopf*, Berlin: Fischer.
- BAeu = DÖBLIN, Alfred (2000). *Berlin Alexanderplatz: Franz Biberkopfen istorioa* [itzul. Antton Garikano], Euba: Ibaizabal.
- ENDE, Michael (1982). *Das Gauklermärchen*, Stuttgart: Thienemann.

- ENDE, Michael (1995). *Jojo, pailazo baten historia, zazpi agerraldiko antzerkia, hitzaurrea eta hitzatzearekin* [itzul. Xabier Mendiguren], Bilbo: Desclée De Brouwer.
- ENDE, Michael (1986). *Jojo, historia de un saltimbanqui* [itzul. Flora Casas], Madril: Debate.
- GGde = BREZINA, Thomas (1995). *Grüße aus dem Geisterschloss*, München: Bertelsmann.
- GGeu = BREZINA, Thomas (2001). *Diosalak espirituen gaztelutik* [itzul. Xabier Mendiguren], Bilbo: Desclée De Brouwer.
- GGes = BREZINA, Thomas (1996). *Saludos desde el castillo de los espíritus* [itzul. José Antonio Santiago], Madril: SM.
- HFde = FRISCH, Max (1957). *Homo Faber: Ein Bericht*, Frankfurt am Main: Suhrkamp.
- HFeu = FRISCH, Max (2001). *Homo Faber* [itzul. Joxe Austin Arrieta], Donostia: Elkarlanean.
- NÖSTLINGER, Christine (1982). *Das Austauschkind*, Weinheim: Beltz & Gelberg.
- NÖSTLINGER, Christine (1991). *Ingeles bat etxean* [itzul. Xabier Mendiguren], Lizarra: Elkar.
- NÖSTLINGER, Christine (1986). *Intercambio con un inglés* [Luis Pastor], Madril: Espasa-Calpe.
- SCHNITZLER, Arthur (2009). *Hildakoek ez dute hitz egiten* [itzul. Ainhoa Irazustabarrena], Irun: Alberdania.

Resumen

En este artículo resumiremos en términos generales la tesis doctoral defendida en marzo de 2015. Dicha tesis tiene como objetivo principal analizar la traducción de determinadas unidades fraseológicas (UFs) del alemán al euskera, y de esta forma, describir el comportamiento traductor (*translation behaviours*) en los textos literarios que se han traducido tanto de forma directa (o parcialmente directa) del alemán al euskera como de forma indirecta. Además, hemos realizado un análisis traductológico basado en corpus, lo que en nuestro caso quiere decir que, partiendo del catálogo Aleuska, hemos creado un corpus digitalizado, paralelo y multilingüe (alemán-español-euskera), y que hemos extraído de dicho corpus las UFs objeto de estudio.

Résumé

Cet article est le résumé de la thèse doctorale soutenue en mars 2015 par Zuriñe Sanz. L'objet de ce travail est d'analyser la traduction de certaines unités phraséologiques (UPs) de l'allemand en euskara et de décrire ainsi le comportement traducteur (*translation behaviours*) dans les textes littéraires traduits de l'allemand en euskara, que ce soit directement (ou en partie directement) ou indirectement. De plus, nous avons fait une analyse traductologique fondée sur un corpus. Dans notre cas, cela signifie que nous avons créé, à partir du catalogue Aleuska, un corpus digitalisé parallèle et multilingue (allemand-espagnol-euskara) et que nous avons extrait de ce corpus les UPs, objet de notre étude.

Abstract

In this article, we summarize a doctoral dissertation defended in March of 2015. The main objective of this dissertation was to analyze the translation of specific phraseological units from German into Basque, and thereby to describe translation behaviors in literary texts translated either directly (or partially directly) or indirectly from German into Basque. Additionally, we carried out a corpus-based translation analysis. Specifically, we used the Aleuska catalog to create a digitized, parallel and multilingual (German-Spanish-Basque) corpus from which we extracted the phraseological units under consideration in this study.

